

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALEKO UDALBATZA OSOAK 2016ko
EKAINAREN 29an EGINIKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esterban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente
Xabier Artiñano

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita bederatzian, bederatzia eta hogeita hamar minutu direnean, Udaltzaba Osoa bildu da ezohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016 ekitaldiko udal-aurrekontua (1., 2., 3. eta 4. eranskinekin batera), Aurrekontua Betetzeko Udaltzabua eta 2016 ekitaldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du aurrekontuaren helburua izan dela Udaltzabaren inbertsioen eta zerbitzuen, eta Administrazio Batzarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuen arteko oreka bat bilatzea.

Kontzejuetako jaien eta Administrazio Batzarrei ematen zaizkien diru-laguntzen partidak hobetu dira. Administrazio Batzarren obrak diruz laguntzeko partida bat sortu da, ordainsarien diru-laguntzekin lotutakoa. Halaber, aurrekontuaren zenbatekoa handitu da gazteria arloko ekintzetarako; horrez gain, ikastaro eta tailerren partida ere hobetu egin da. Euskara ikasteko diru-laguntzen partida ere hobetu da. Luioandoko pista ixteko proiekturako partida bat gaitu da, eta Luioandoko Padura kaleko mugikortasuna hobetzeko partida bat sortu da.

Gentza jaunak jarraitu du azalduz berdintasuneko partidaren zenbatekoa handitu dela, presentzia handiagoa izan dezan, batez ere zeharka, Udaleko ekintza guztietan. Halaber, haurrentzako altzariak eta altzari osasungarriak erosteko partida bat sortu da. Energia-eraginkortasuna sustatzeko eta ikastolan energia-ikuskapena egiteko partida bat ere sortu da.

Azkenik, azaldu du diru-sarreraren kapituluan partidak zuhurtzia printzipioaren bitartez esleitu direla, orekarik errealea bilatze aldera.

Iraida andreak (AB) aipatu du aurrekontua urte hasieran landu beharko litzatekeela, jada egin diren gastuei buruz erabakiak hartze aldera. Halaber, adierazi du Batzarretako obren diru-laguntzen partida mantentze-lanetarako ere izatea nahiko luketela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du berak esandakoa aintzat hartuko dela, baina mantentze-lan txikiak ere aztertuko direla.

Iraida andreak (AB) dio Batzarrei jakinarazi behar zaiela nola lagunduko zaien klorazioaren gaiarekin. Gainera, udaleko FOFEL horren zain daude, eta espero dute 2017rako martxan egotea.

Lauren jaunak (BILDU) adierazi du bere taldearen ustez aurrekontua eztabaidatzeko prozedura ez dela egokia izan; izan ere, ez dute talde guztiakin hitz egin. Normalean, gobernu-taldeak aurrekontua aurkeztu ohi du, eta epe bat ematen du ekarpenak aurkezteko eta talde guztiek aurrekontuaren berri izateko. Adierazi du bere taldeak hainbat ekarpen egin dituela, baina mahai gainean geratu direla.

Bestetik, Lauren jaunak azaldu du bere taldeak proposatu zuela Luiaondoko geltokiko zerbitzuak hobetzea, komun bat egokituz eta aparkalekua handituz. Era berean, beste hainbat proposamen egin zituzten: Administrazio Batzarretako diru-laguntzen partidak agortzea; euskara ikasteko gastua % 100ean diruz laguntzea, eta ordenantza aldatzea; Luiaondoko udal-bulegoaren aurrean dagoen plaza urbanizatzea; eta, zati batean soilik bada ere, Las Vegaseko zonaldeko urbanizazioa nola hobetu pentsatzea, garraio publikorako markesina bat jarrita.

Halaber, bidegorriaren azpiegiturak osatzea proposatu zuten, jende gehiagok erabili dezan; izan ere, jende asko ibiltzen da. Udalerriko puntu beltzak aztertzekeko modu bat bilatzea eta horietan argiak jartzea ere proposatu zuten. Administrazio Batzarren eskumenekoa izan arren, Luiaondoko geltokiaren ingurua argiztatzeko moduren bat aztertu beharko litzateke.

Lauren jaunak amaitu du esanez aurrekontua bere taldeak pasa den legegintzaldian egindako ekarpenen jarraipena dela, eta iaz landutako gauza berak jasotzen dituela. Hala ere, bere taldea abstenitu egingo da, esan bezala, prozedura ez delako egokia izan, eta aurrekontuak eztabaidatzeko modua aldatzea proposatu du. Halaber, adierazi du legegintzaldiaren erronkak hasieran zehaztu behar direla, eta ez duela ezer berririk ikusi aurrekontuan, Padura kaleko gaia izan ezik.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du gobernu-taldeak argi eta garbi dituela legegintzaldi honetako erronkak, eta zehaztu dituen estrategien arabera markatuko dituela. Berritasun gisa, azaldu du lehen aldiz lanean hasiko direla Luiaondoko Barrena kaleko arazoa konpontzeko; izan ere, premiazkoa da bertan esku hartzea eta, horretarako, gune horretarako hitzarmen bat gauzatuko dute. Ingurune horretan edozein elementu sartzea ia ezinezkoa da; konponbide integrala behar da, eta orain arte ez da horrelako ezer egin.

Lauren jaunak (BILDU) aipatu du aurreko legegintzaldian ere jabearekin hitz egin zutela eta lursailak aurreratzeke aukera aztertu zutela, nahiz eta hori ez zen gero aurrekontuetan islatu.

Nerea andreak (BILDU) nabarmendu du aurrekontua berandu iritsi dela, batez ere kontuan hartuta gobernu-taldeak zinegotzi bat gehiago duela eta egoera ekonomikoa aurreko legegintzaldikoa baino hobea dela; baldintza horietan agian posible zitekeen aurrekontua azkarrago izapidetzea.

Gentza jaunak erantzun du zinegotzi bat gehiago izateak ez diola gobernu-taldeari ezer bermatzen; izan ere, haien botoak ez ziren nahikoa aurrekontua onesteko eta, ondorioz, beharrezkoa zitzaizen oposiziokoekin hitz egitea eta akordioak erdiesten saiatzea.

Iraida andreak (AB) esan du bat datorrela Bilduk esandakoarekin, baina hori finantzatzeko zenbatekoa nondik atera zehaztekeo lana falta dela; nondik kendu jakin behar da dirua beste gauza batzuetara bideratu ahal izateko.

Inork ez du beste ezer esan; beraz, aurrekontuari eta eranskinei buruzko bozketa egin da, eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ + 2 AB)
Abstentzioak: 4 BILDU

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2016 ekitaldirako aurrekontuaren espedientea.

AINTZAT HARTU DA.- Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuak Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman zuela, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita bian egin zen bilkuraren ondoren.

Korporazioak, gehiengo osoz, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Hasiara batean onestea 2016 ekitaldirako korporazio honen aurrekontu orokorra, 2.109.884,83 eurokoa, diru-sarreraren zein gastuen egoerari dagokiona. Hona hemen kapituluen laburpena:

DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1.- ZERGA ZUZENAK.....:	666.800,00
2.- ZEHARKAKO ZERGAK.....:	40.000,00
3.- TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK.....	171.609,00
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....:	1.166.788,68
5.- ONDAREKO DIRU SARRERAK.....	19.620,00
DIRU SARRERA ARRUNTAK (1etik 5era).....	2.064.817,68
6.- BENETAKO INBERTSIOAK ETA HIRIGINTZA JARDUERETATIK ERATORRITAKO BESTELAKO DIRU SARRERAK BESTERENTZEA.....	0,00
7.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK.....	45.067,15
8.- FINANTZA AKTIBOAK.....	0,00
9.- FINANTZA PASIBOAK.....	0,00
DIRU SARREREN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.109.884,83

GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1.- LANGILERIA GASTUAK.....:	541.156,55
2.- ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	749.243,80
3.- FINANTZA GASTUAK.....:	2.000,00
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.....:	514.481,58
ERAGIKETA ARRUNTAK (1etik 4ra).....	1.806.881,93
6.- INBERTSIO ERREALAK.....	227.263,54
7.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK.....	70.000,00
8.- FINANTZA AKTIBOAK.....	5.739,36
9.- FINANTZA PASIBOAK.....	0,00
KAPITALAREN ERAGIKETAK (6tik 9ra).....	303.002,90
GASTUEN AURREKONTUA GUZTIRA.....	2.109.884,83

Bigarrena.- Onestea aurrekontuaren espedientean dagoen Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua.

Hirugarrena.- Onestea aipatu espedientean jasota dagoen aurrekontuaren lanpostuen zerrenda eta 1., 2., 3. eta 4. eranskinak.

Laugarrena.- Onestea 2016 ekitaldirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Bosgarrena.- Espediente hori jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioak aurkez daitezen, 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

Seigarrena.- Erabaki hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean.

Zazpigarrena.- Erreklamaziorik egonez gero, hilabeteko epean beste erabaki bat hartzea.

Zortzigarrena.- Erabakia argitaratzea arauk ezarritako moduan eta epean.

Bederatzigarrena.- Behin betiko erabakiarekin batera, erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hamargarrena.- Aldi berean, espedientearen kopia bana igortzea Arabako Foru Aldundiari eta Arabako Ekonomia eta Ogasun Ordezkaritzari.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hamarrak direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita bederatzian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.